

BALIO PROPOSAMENA



Gure aplikazioak txanponak eskaintzen ditu, aurretik aplikazioan idatzitako atazak egiteagatik. Egindako ataza bakoitzeko txanpon-kopuru bat lortzen da. Txanpon horiek lehiaketan gora edo behera egiten laguntzen dute. Zure lagunekin modu pribatuan ere lehiatu daiteke.

Gaur egun, pertsona guztiok antolaketa ona behar dugu gure bizitzan. Hala ere, askotan nekea edo denbora faltaren aurrean aurkitzen gara, eta horrek prozesu hau zailtzen du. Nerabeen kasuan, antolaketa faltak ondorio negatiboak ekar ditzake, hala nola gaintitu ez diren irakasgaiak, behar adina ikasi ez dugulako edo etxeko lanak denboran amaitu ez ditugulako. Honek estres eta antsietate ziklo bat sortzen du, eta hori saihestu daiteke planifikazio egokiarekin.

Garrantzitsua da ulertzea antolaketa ona ez dela bakarrik ikaskuntza edora lan emaitza hobeak lortzeko, baizik eta denbora eta lehentasunak kudeatzen laguntzen digula. Aplikazio hau zehazki antolaketa errazteko diseinatuta dago, baita denborarik ez duzula sentitzen duzunean ere. Tresna praktikoekin eta gogorazpenekin, zure ikasketak eta lanak eguneratuta mantentzeko aukera izango duzu, helburuak lortzen lagunduz, nahasmendurik sentitu beharrik gabe.

Guk aplikazio honekin **jendeari lagundu nahi diogu**, egin behar dituzten gauza guztiak antolatzen ikas dezaten. Guk nahi duguna da jendeari bere bizitzan hobeto joatea honekin. Uste dugu aukeratu egingo gaituztela, beste aplikazio batzuek ez dituzten funtzio asko eskaintzen baititugu, hau da, gu, aplikazio gisa, egiten duzunari eta **zure bizimoduari egokitzen gara**.

Hau da eskaintzen duguna:

Egun edo aste batzuk badituzu eta egiteko asko badituzu, aplikazio hau ezin hobea da dena modu eraginkorrean antolatzen laguntzeko. Horiek erabiliz, **zure denbora modu eraginkorragoan kudeatu ahal izango duzu**, eta, horri esker, denbora libre gehiago izango duzu beste jarduera pertsonal batzuetan edo zure interesetan aritzeko.

Tresna honek egunean edo astean bete behar dituzun zeregin guztien zerrenda egiteko aukera emateaz gain, lan horiek modu ezin hobean antolatzeaz ere arduratzen da, estresik gabe egin ahal izan ditzazun. Gainera, zure konpromisoak betetzen lagunduko dizuten orogarriak eta iradokizunak eskaintzen dizkizu, ezer kanpoan utzi gabe. **Zure eguneroko plangintzaz arduratzen den laguntzaile pertsonala izatea bezala da!**

Adibidez, ikasle segmentuko erabiltzailea bazara, eguna antolatzeaz gain, egunen batean azterketaren bat baldin baduzu, astebete lehenago edo bi egun lehenago gogoraziko dizu, ikastea ahaztu ez dakizun, badaezpada zeregin gehiago edo azterketa gehiago egiteko. Eta lanen bat edo etxeko lanen bat entregatu behar baduzu, hori ere gogorarazi behar dizu, egiten joan zaitezen eta entregatzeko eguna iritsi eta egun horretan ezer egin gabe egon zaitezen.

Azterketaren bat edo klaseko lanen bat egiteko data gehiago duzun bakoitzean, aplikazioan idazten duzu. Aplikazioa programatzen da hurbiltzen ari denean data gogorarazteko.



Aplikazioari jokoa emateko, lagunekin edo jende ezezagunekin lehiatzeko aukera ematen duen atal bat ere izango du.

Atal honetan, aplikazio honek egunero gogorarazpen bat bidaltzen du, guztira bost helburu betetzeko. Egiten badituzu, sari bat izango duzu, 5.000 txanpon.

Idea horrekin, **helburu horiek betetzera bultzatu nahi ditugu** pertsonak, lanak motibazioz egin ditzaten errazteko.

Mugimendu horiek erregistratu egiten dira, eta atal hori erabiltzen duten pertsona guztiekin, elkarren artean lehiatuko dute. Hala, gure bezeroak motibatuko ditugu aplikazioa erabiltzeko. Lehiaketa honek bakoitzaren helburuak bete ahal izateko balio du. Adibidez, ikasketak egunean eramateko, egunak antolatuak izateko norberaren bizitza soziaiarekin denbora izateko, azterketak eta bestelakoak prestatzeko denbora gehiago izateko.